

1. GOBERNU GARDENA

SARRERA

Gobernu Gardeneko Alorrean, funtsean, orain arte Alkatetza Kabineteak eta Udal Gerentziak zituzten eginkizunak eta eskumenak elkartzen dira, eta haiei beste eginkizun batzuk gehitzen zaizkie. Hari ematen zaio Udalak Asociación Navarra de Informática Municipal, S.A. (ANIMSA) merkataritza-sozietatearekin dituen harremanen ardura, bai eta Arartekoarekin zein Kontuen Ganberarekin dituenena ere. Alor hau Alkatearen mende dago zuzenean. Helburu nagusia da gobernu-era berria sortzea, oinarritzat hartuta erabateko gardentasuna, informazioa eskuratzeko erraztasuna eta gizarte-partaidetza udal-erabakietan. Horrez gain, udal-administrazioaren modernizazioa, koordinazioa eta arrazionalizazioa sustatuko ditu. Alorrak lau lan-esparru ditu:

a) Alkatetza Kabinetea, Protokoloa eta Komunikazioa

- Alkatearen aholkularitza, laguntza eta idazkaritza.
- Erakundeekiko eta kanpoko harremanak.
- Protokoloa.
- Kanpora begirako jarduketan koordinazioa eta gainbegiratua.
- Hiriko ekitaldi ofizial eta ospakizunen zuzendaritza.
- Iruñeko Udalaren eta hiri senidetuen arteko harremanen sustapena.
- Alkatetzako kontuak.
- Udal-jarduna helaraztea herritarrei, dela bere bitartekoak baliatuz dela komunikabideen bidez.
- Egun ditugun komunikazio-tresnen zein etorkizunean izan daitezkeen koordinazioa eta dinamizazioa, bai eta zeregin horretan ari diren udal-langileena ere.

b) Administrazioaren Koordinazio Teknikoa – Udal Gerentzia

- Aldian-aldian gobernu-alorren funtzionamenduaren koordinazio tekniko egitea Koordinazio Teknikorako Mahaiaren bidez, bertan alor guztietako zuzendariek parte hartuta; alorretarako elkarguneak proposatuko ditu, halakorik izan ezean. Aipatu mahai horretan, parte-hartzaile iraunkorrak izanen dira Berdintasuneko eta Hizkuntza Politikako zerbitzuak, ziurtatzeko era egokian ezartzen direla hala zeharkako jardun-planak nola erabilerraztasun unibertsala bermatzeko ekintzak.
- Administrazio elektronikoaren ezarpena eta Udalak ANIMSArekin dituen harremanak ordenatu eta gidatzea.
- Alor bat baino gehiago ukitzen dituzten diru-laguntza estrategikoetarako lerro izateko hautagaitzen buru eta koordinatzailea izatea.
- Iruñeko Udaleko memoriak.

- Harremanak Arartekoarekin eta Kontuen Ganberarekin.
- Errolda.
- Erregistroak.
- Izatezko bikoteen erregistroa eta ezkontza zibilak.
- Herritarrendako Arreta Zerbitzua.
- Udal Agiritegia.
- Jarduera-planak proposatu eta Udalaren helburuak gauzatzea, eta horiek betetzeko behar diren baliabideak esleitzea, dagozkien aurrekontu-arauekin bat.
- Udalak bere gain hartutako konpromisoak eta adierazleak betetzearen jarraipena, alor guztiekin lan eginik eta aginte-taula integral bat osatuta.
- Udaleko zerbitzuen kalitatea helburu duten jarduketak betetzeko sustapena eta gainbegirada.
- Jarduketa-planen ebaluazioa, haiek aldatzeko edo bertan behera uzteko behar beste proposamen eginda.
- Alorrei urtean-urtean esleitu behar zaizkien baliabideei buruzko proposamena, aurrekontuetan.
- Gobernu-organoei proposatzea haien eskumenen esparruan dagozkien aferak.
- Gobernu Batzarrari proposatzea, hark oneste aldera, hala xedapen-proiektu orokorrak nola haren eskumenen esparruan dagozkion gainerako proposamenak.
- Hala behar izatera, antolaketa-aldaketei buruzko txostena egitea, alorren eta departamentuen antolaketa- eta egitura-proiektuak barne hartuta.
- Aplikazio informatiko berriak abiaraztea, herritarrekiko harremanak hobetze aldera.

c) Soziologia

- Azterketa soziologikoak egitea informazioa jasotzeko hiriko gizarte-egoeraz eta haren eraldaketez (pobrezia eta haren irismena, etxebizitza, euskararen ezagutza eta erabilera, demografia-bilakaera...), hori guztia, erabakiak hartzeko era hobetze aldera.
- Herritarren Behatokiaren eraketa.
- Herritarrek parte hartzeko prozesu guztiak erraztu eta babestea, babes teknikoa emanaz Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizartea Ahalduntzeko Alorraren jardunari.

d) Udal Aholkularitza Juridikoa

- Zuzenean Alkatearen mende arituta, titularrak (zuzendaria) Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak egozten dizkion eginkizunak izanen ditu: Alkatearendako, Tokiko Gobernu Batzarrarendako eta zuzendaritza-organoendako laguntza eta aholkularitza juridikoa, defentsaren zuzendaritza eta ordezkaritza epaiketetan eta kontratazioa.

- Bere eginkizunak gauzatuta, titularrak (zuzendaria) behar diren zerbitzuko aginduak eta jarraibideak emanen ditu.
- Zuzenean Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritzaren mende arituta, Tokiko Gobernu Batzarrari laguntzeko organoaren Titularrak Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak egozten dizkion eginkizunak izanen ditu, bai eta zerbitzu juridikoak koordinatzekoak ere.

GOBERNU GARDENA

Herriarrendako proiektuak

Iruñeak bultzatutako **mugaz gaindiko** bi **proiektu** (Creacity eta Jacob@access) Europak finantzatuko ditu. Bi programen aurrekontu osoa 3,1 miloi eurotik gorakoa da, eta haren % 65 Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz gaindiko Lankidetzaren Programak (POCTEFA 14-20-INTERREG VA) hartuko du, horizontea 2018. urtea dela.

Iruñeak, Hondarribiak eta Baionak gotorleku-ondareari balioa emateko lan-ildo bat sortzearen aldeko apustua egin zuten 2015eko urrian, berrikuntzan oinarritutako turismo kulturalera eta sormen artistikoko ekimenen bidez. **Creacity** programaren asmoa hiru hiriak lurralde bakar bat bezala tratatzea zen, hirurek baitituzte gotorlekua eta natur ondarea, horretan lan egiten duten erakunde, elkarte eta kolektiboen lana balioesteko.

Iruñearenak bi jarduketa hauek aurreikusten ditu, besteak beste: esperimentazio eta sormen artistikoko zentro bat bultzatzea Ziadadelan (Hiriarte, hiriko beste kultur baliabide batzuekin lotuta betiere) eta produktu turistiko bat sortzea kultur ondaretik eta gastronomiatik, Iruñeko Turismoko Plan Operatiboaren ildotik. Xedea jarduera-programa bat sustatzea izango litzateke, sormen-industrien (jarduera artistikoak, diseinua, internet eta abar) eremuaren inguruan tokiko jarduera ekonomikoa sortuko lukeena. Hauek dira programa horren barruan antolatzen diren jarduerak, besteak beste: Harresien Jaialdia, ozeanoz gaindiko gastronomia-foroa, topaketak eta jardunaldiak hiru hirietan, edo ekimen bateratuak, hala nola *urban sketchers* delakoen arteko bilera bat.

Jacob@access proiektua, aldiz, Jacako Udalak lideratzen du, eta mugaz gaindiko sare bat sortzea du xede, desgaitasunen bat duten pertsonen eskura izan ditzaten Donejakue bideak zeharkatzen dituen herrien kultura eta ondarea. Frantziako Iholdi-Oztibarreko Elkargoak ere bat egin du programa horrekin, baita irisgarritasunaren arloan diharduten hiru entitate hauek ere: EVAH, Atades Huesca eta Koiné-Aqualitas.

Proiektu horren barruan, Iruñeak Energia Agentziaren antzinako egoitza birgaitu, Donejakue bideak zeharkatzen duen kale batean baitago (Kale Nagusia 20), eta Donejakue Bidea Interpretatzeko Zentro bat jarriko du, desgaitasunen bat duten pertsonen ere erabiltzeko moduan egongo dena. Jarduketak eraldaketa sozio-urbanistikoa ekarriko luke, saltoki txikiak eta

ostalaritza sustatuta, kontratazio publikoa ekitatez gauzatu behar delako kontzeptutik abiatuta (Tribatu). Zentroa desgaitasunaren munduarekin lotutako entitate eta elkarteekin batera kudeatuko da.

Beste bi proiektuk, ordea, ez zuten lortu Europak finantzatzetik. **Iruña Hegoaldeko EDUSI Estrategiak** Milagrosa-Arrosadia, Azpilagaña eta Santa María la Real auzoak zituen xede. Hiriko hainbat zona sustatu eta haien bizi-kalitatea hobetzea zen helburua, arlo jakinetan esku hartuz, garapen ekonomikoak, eraginkortasun energetikoak, mugikortasun iraunkorrak, integrazio sozialak eta informazio eta komunikazioko teknologietarako sarbideak bat eginda. Nolanahi ere, Iruñeko Udalak erreferentzia-dokumentu gisa erabiliko du EDUSI-Hegoaldeko Plana datozen hiru urteetarako udal-jarduketetarako.

‘**Green Hiri Lab**’ proiektua CENER, REAS eta NASUVINSA erakundeekin batera aurkeztu zen, eta energia berriztagarrien erreferente bilakatu nahi zuen antzinako autobus-geltokia, eta sortu energia-eredu berria bultzatuko zuen hiri-laborategi bat. Laguntzak ukatuta, Udala eraikinerako ekimen berriak aztertzen ari da; bitartean, leihatilen eta ostatuaren eremua berritzen ari da, ‘Geltoki’ proiektu bilduko baitu, ekonomia sozial eta solidarioa bultzatuko duena jarduera kulturalekin batera.

Sanduzelai auzoak ere berariazko proiektu bat izan zuen 2016an. “**Erdigune**” proiektua auzoko koadrante zaharrenean esku-hartze sozio-urbanistikorako proposamenak diagnostikatu eta prestatzeko sortu zen. Auzokideek lan-talde, tailer, elkarrizketa eta galdetegien bidez egin zituzten ekarpenak, eta hauek izan ziren aipagarrienak: lehentasuna ematea oinezkoiei, eta ez autoei; parkea gehiago erabiltzea; integrazio kulturala; edadetuei laguntzea; edo herritar-segurtasuna. Labaien doktorea, Simonena doktorea, Sanduzelai, Nicasio Landa doktorea, Lucea doktorea eta Juaristi doktorea kaleek zein Sanduzelaiko etorbidearen hegoaldeko aldeak osatzen dute 1960ko hamarkadaren amaieran eta 1970eko hamarkadan zehar egindako koadrante hori. Jarduketaren arrazoia zonan azken hamabost urte hauetan izandako zaugarritasun sozial eta urbanistikoa da, krisi ekonomikoak eta laguntza publikoen murrizketak larriagotu dutena.

Udal-politikak

Iruñeko Udalak **Bulego Estrategikoa** bultzatu zuen 2016an, arlo desberdinen arteko koordinazioa sustatzea helburu nagusia duena, udal-kudeaketan berrikuntza-proiektuak abiarazte aldera. Bi udal-zerbitzuren (Soziologia Unitatea eta Kanpo Finantzaketako Bulegoa) birkonfigurazioaren emaitza da bulegoa, eta bost pertsonak osatutako diziplinarteko lan-taldea izango du.

Bulego Estrategikoak hiriaren eraldaketa-prozesua hurrengo hamarkadan zehar jorratu nahi du, estrategikoki, herritarren itxaropenak asebate eta kalitate-estandarrei eusteko helburuarekin. Bere lanabes nagusietako bat Plan Estrategikoa taxutu eta hari jarraipena egitea da, kohesio

sozial handiagoa sortuko duena, anitzagoa, irekiagoa, abegikorragoa, irisgarriagoa eta iraunkorragoa. Horretarako, hiriaren arazoak eta aukerak aztertu eta hausnartu behar dira, batetik, eta, bestetik, ingurune sozio-ekonomiko berriei lotutako proiektuak garatu behar dira. Bost pertsonak osatuko dute.

Bulego Estrategikoaren zuzendaritzak eta Gobernu Gardeneko Alorrarenak koordinazioan lan egingo dute, bai eginkizunak eta jarduerak finkatzeko, bai barne-koordinazioa zehazteko. Bi teknikari daude, estrategia-kudeaketan eta proiektuetan adituak: aliantzak garatu, Europako Batasuneko programak definitu eta proiektu-hautagaitzak prestatuko ditu bata; eta besteak esperientzia du proiektu-kudeaketan eta proiektu berritzaileak definitu eta abiaraztean, alor desberdinekin koordinatuta. Bukatzeko, beste bi pertsona daude (soziologian lizentziatuak behar dute), ikerketa-lanak eta azterketa estrategikoak egitea helburu dutenak; alorrei laguntzen diete, bestetik, berariazko plan eta politiken kudeaketa eta ebaluazioan.

Urtea amaitu aurretik, Udalak **Plan Arauemailea** onetsi zuen, 16 ordenantza berri, bi erregelamendu eta Milagrosarako Plan Berezi berria sustatzea aurreikusten zuena 2017rako. Alorrez alor, nabarmengarriak dira Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko Alorrak ordenantza berriak egiteko zazpi proposamenak, Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako Alorrak abiaraziko dituen bostak, Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorra prestatzen ari den hiruak eta Gobernu Gardeneko Alorra jorratzen ari dena. Erregelamenduei dagokienez, bata, Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrak proposatu zuen, eta bestea, Herriarren Partaidetzak. Bukatzeko, Hirigintza Gerentziak Milagrosarako Plan Berezi berria sustatu nahi du. Besteak beste, hauen inguruko ordenantzak onesteko debatea piztu nahi du Udalak: hutsik dauden etxebizitzak, zaharberritzeko diru-laguntzak, eraikinen ebaluazio-txostenak egiteko laguntzak, Udalaren lokal eta espazioen erabilera, mugikortasuna, eta hiri-baratzeak; lege arloko bestelako ekimenak ere bultzatu nahi ditu, hala nola herriarren parte-hartzerako erregelamendua eta eskola-instalazioen erabilerakoa.

Halaber, **Agiri Elektronikoei buruzko Plan Zuzentzaile** bat (AEPZ) onetsi zuen, hots, haien bizitza-zikloan zehar agiri eta espediente elektronikoen kudeaketa eraginkorra bermatu nahi duten zuzentarau-, prozedura- eta praktika-sorta. Administrazio elektronikoranzko bidean egiten ari den etengabeko lanean urrats bat gehiago da, gobernu onaren, informazio publikoa eskura jartzeko bidearen eta gardentasunaren parametroetatik abiatuta. 2008 eta 2016ko irailaren artean, orduantxe onetsi baitzen plana, Udalak 7,6 milioi agiri elektronikoen baino gehiago sortu zituen. Herriarrek zein funtzionarioek agiri elektronikoen funts honetan egiten dituzten kontsultek 3 milioi sartzeko baino gehiago eragiten dituzte (aurtengo irailaren 30era arte 2,9 milioi sartzeko egon dira). AEPZren helburua da, besteak beste, udal-administrazioak ekoiztu eta jasotzen dituen dokumentuak benetakoak, fidagarriak, osoak eta erabilerrazak direla ziurtatzea, haien bizitza-ziklo osoan zehar, herriarren eskubide eta betebeharrak zein Iruñeko Udalaren eginkizun eta jarduerak betetzen direla bermatzeko, eta ikerketarako iturri gisa erabiltzeko.

Iruñeko Udalak **gardentasun-ataria** ireki zuen apirilean, herritarrek beharrezko informazio guztia eskura izan dezaten, Gardentasunari buruzko 19/2013 Legearekin bat. Atalak erakunde-, antolakuntza- eta planifikazio-informazioa, garrantzia juridikoko informazioa, datu ekonomikoak, aurrekontukoak, eta estatistikak bilduko ditu. Atariak egungo gardentasuneko eta open datako eduki guztiak ez ezik, eduki berriak ere leku bakar batean biltzen ditu. Harrez gero, Open Data atala Gardentasuna atari berria da orain, hiru sail dituen: Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legean jasotako adierazleak; webguneko open data atalean eskura dagoen informazioa; eta Transparency Internacional España erakundeak ezarritako adierazleak (azken edizioa 2014koa da).

Memoria historikoa

- Erorien Monumentuaren kriptako hilerriaren itxiera

Abuztuaren amaieran, **Erorien Monumentuaren kriptan hilobiratutako zortzi pertsonen gorpuzki guztiak azaroan hobitik ateratzeko prozesua** aktibatu zuen Udalak. Emilio Mola eta José Sanjurjo jeneral kolpistak ziren, baita gatazka armatuak iraun zuen hiru urte baino gehiagoan frontearen eroritako beste sei pertsona ere, bando nazionalekoak guztiak: Joaquín Sota Garayoa, Severiano Arregui Olalquiaga, Pedro Martínez Chasco, Jaime Munárriz Escondrillas, eta Joaquín eta Dimas Aznar Zozaya.

Iruñeko Artzapezpikutzarekin eta hilobiratutakoen senitartekoeekin hainbat aldiz harremanetan jarri ondoren, administrazio-prozesu formala abiatu zen Udalak Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuari Eroritakoen Monumentuko kriptaren hilerria itxi zezala eskatu zionean, Nafarroako Hileta Osasunari buruzko Erregelamenduak ezartzen duenarekin bat. Eroritakoen Monumentuko kriptan bildutako gorpuzkiak hilobitik ateratzeko, egiaztatzeko eta dokumentatzeko lanak egin eta gero, senitartekoei emateko asmoa dago, kriptaren hilerria gisa itxi eta gero.

1998ko maiatzaren 19an, Iruñeko Artzapezpikutza eta Kristo Erregea parrokiak Eroritakoen Monumentua eman zioten Udalari dohaintzan, eraikinak zaharberritze-lanak behar zituela ikusita. Gastu horiek Udalak hartu zituen bere gain, dohaintzaren truke. Dohaintza horren eskrituran zenbait baldintza jasotzen dira: parrokiak erdiko kriptaren behin betiko erabiltzeko eta gozatzeko eskubidea izatea, dohaintzan emandako eraikina zutik egon artean, non egoki jotzen dituen kultu-jarduketak egiten ahalko dituen, bai eta ezkerreko arkuteriaren azpian diren lokalen erabilera eta gozamina ere edukitzea.

Azaroan, aurkeztutako alegazioak atzera bota ondoren, han zeuden gorpuzkiak hilobitik atera, eta **itxi egin zen Eroritakoen Monumentuko kriptaren hilerria**. 24 orduz lan egin ondoren, kriptaren hutsik geratu zen. Bertan izan ziren zerbitzu ezberdinetako udal-langileak, Artzapezpikutzaren ordezkariak eta bertan egon nahi izan zuten familiak, edo haien ordezkari legalak, eta lau desehorzetan Aranzadi Zientzia Elkarteko teknikariak ere izan ziren.

Prozesua agiritan jasota geratu zen, Udalak eta Artzapezpikutzak adostutako hitzarmenaren baldintzekin bat betiere, hots, desehorzketak erabateko intimitatean egitea, ezinbesteko langile teknikoek soilik esku hartuta.

- Giza eskubideen urraketa buruzko peritu-txostena

Urrian, **‘Gerra Zibilean eta garai frankistan Iruñean bizi ziren herritarrek jasan zituzten giza eskubideen urraketen peritu-txostena’** eman zen argitara, Nafarroako Unibertsitate Publikoak egin. Txostenak dio 306 iruindar (304 gizon eta 2 emakume) erailak izan zirela edo gatibualdian hil zirela frankismoaren garaian arrazoi politikoengatik, eta, kasu gehienetan (302) alde aurretik epaituak izan gabe eta epai irmorik gabe. Maiatzetik irailera arte zabaldutako Iruñeko Frankismoaren Errepresioari buruzko Oroimen Historikoaren Informazio Bulegoan, 176 espediente berrireki ziren.

Guztira, txosten honen arabera, hirian errepresaliatuak izan ziren eta giza eskubideen urraketak jasan zituzten 1.310 pertsona egon zirela esateko frogak daude. Baina kopuru hori lehen hurbilketa bat besterik ez da. Izan ere, badago beste 451 kasuren berri, nahiz eta oraindik ezin izan diren baliozkotu; hain zuzen, NUPEko taldearen arabera, ehunka gehiago agertuko dira lan hau egitearen ondorioz.

Eraildako edo gatibualdian hildako 306 lagunetatik, 4 baino ez ziren izan alde aurretik epaituak, eta 302 bortxazko desagerpen gisa definitu daitezke, atxilotu ondoren edo “aske irten” ondoren erailak izan baitziren, senideei jakinarazi gabe. Senideek beste momentu batzuetan eta beste bide batzuetatik jaso zuten pertsona horiei gertatutakoaren berri. Eraildako 306 lagun horiez gain, ihes egitea lortu zuten lagunak izan zirela seinalatzen du txostenak, eta gerora frontearen edo preso hil zirenak, edo ihesaldian, eta horiek zenbatzea zaila dela onartzen du txostenak.

Iruñean erroldatuta eta arrazoi politikoengatik urte horietan zehar preso egon ziren biztanleei dagokionez, 1.014 kasu egiaztatu ahal izan dira orain arte (867 gizon eta 147 emakume).

Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Fondo Dokumentalaren datu baseetan jasotako kopuruen arabera eta Iruñean Frankismoaren errepresioari buruzko Oroimen Historikoaren Informazio Bulegoan jasotako testigantzen arabera, gehienak probintzia-espetsuean edo presondegian egon ziren (806, 668 gizon eta 138 emakume). Gainontzekoak komisaria edo tokiko kuarteletan egon ziren preso (111 kasu), erbesteko kontzentrazio-esparruetan (84 kasu), tokiko zein alderdi judizialeko espetsuetan, bat-batean egindako atxilotze-esparruetan, Espainiako kontzentrazio-esparruetan eta lan-batailoietan.

Errepresio ekonomikoari dagokionez, 159 kasu baliozkotu jasotzen dira, nahiz eta txostenak azaltzen duen errepresio modurik erabilienetakoa izan zela. Adibidez, Ardura Politikoen Auzitegiak 168 espedienteri hasiera eman zien (gutxienez), Iruñeko auzokideei diru kopuru

zehatzak eskatzeko. Udal-funtzionarioak ere baztertuak izan ziren eta 19 langile kargugabetu ziren. Nafarroako Foru Diputazioko 200 langile ere kargugabetu ziren, gehienak Iruñean bizi zirenak.

Txostenak ere badio gutxienez 225 iruindar lekualdatu behar izan zirela, izan erbestera (133 kasu egiaztatu), izan nahitaezko deserrira (7 kasu) edo errepublikarren zonaldera ihesi (85 kasu), hasiera batean Behe Nafarroara eta Gipuzkoara, eta Kataluniara gero. Azkenik, genero-errepresioari dagokionez, txostenak dio eremu honetan oraindik asko ikertzeko dagoela, eta dauden datu eskasek talka egiten dutela jasotako testigantza ugariekin.

- *“Egia, justizia eta ordaina... Orain! “ manifestua eta jardunaldi munizipalista.*

Txostena ezagutu eta egun gutxi barru, Iruña, Bartzelona, Gasteiz, Rivas, Zaragoza, Coruña eta Cádizko udal-ordezkariek **Egia, justizia eta ordaina... Orain!** manifestua izenpetu zuten, Ziuadelan. Izenpetzea “Iruñeko topaketak: egia, justizia eta ordaina. Frankismoaren krimenen kontrako kereilen aldeko udalak” jardunaldi munizipalistaren barruan egin zen; udal-mailan gai horri buruz egindako lehen hitzordu nazionala izan zen.

Manifestua zabalik dago beste herri eta hiri batzuen atxikimendua jasotzeko, eta jakitera ematen du kereilaren sustapena ez dela oinarritzen “mendeku asmoan, baizik eta Egia, Justizia eta Ordaina aldarrikatzeko giza eskakizunean, zerbitzatu behar ditugun herritarrek aspalditik eskatzen duten zerbaitetan, alegia”. Halaber, agerian uzten du manifestu hau sinatzen duten udalerrion asmo garbia “gure borondate irmoa erakusteko gure kereilekin hasitako bideari amaiera arte ekiteko, gure udalerrien artean lankidetzaz eta elkartasun munizipalistako harremanak osatzeko, eta gure Erkidegoetako eta Estatu osoko gainerako udalerriei gonbit egiteko bat egin dezaten azken hamarkada hauetako inpunitatea amaitzea eta krimen frankisten aurrean Egia, Justizia eta Ordaina eskatzea xede duen ekimen honekin”.

Agiria 1936ko uztailaren 18ko kolpe militarrari buruzko testu batekin abiatzen da, eta hortik frankismoaren bukaera arte jarraitzen du, betiere azpimarratuz egia, justizia eta ordaina aldarrikatzeko beharra “ehun milatik gora fusilatu eta desagertuentzat”, zeinei diktadura garaian beste ehunka mila batzuk gehitu behar zaizkie: erbesteko bidea hartzera behartuak, esklabotasun baldintzetan bortxazko lanak egitera makurtuak, emakume atxilotuak, torturatuak edo zeini seme-alabak kendu zizkieten espetxe, klinika eta amaetxeetan”.

Hori horrela, tokiko erakundeen arteko loturak sendotzea da bidea, haien arteko elkarlana eta elkartasuna bultzatzea, “azken hamarkada hauetako inpunitatea amaiazteko”.

Herritarrendako Arreta Zerbitzua

Iruñeko Udalaren **Herritarrendako Arreta Bulegoak** 58.000 arta egin zituen guztira 2016an, aurreko urtean baino % 17 gutxiago, alde aurretiko hitzordua ezarri zelako eta tramite gehiago egin zirelako telefono edo web bidez, gehien bat. Aldez aurretiko hitzordu-sistema urtean zehar

ezarri zen, eta, geroztik, hitzordua eskatu behar du herritarrak udal-bulegora joan aurretik; www.pamplona.es webgunearen bidez edo 010 telefonoaren bidez egin dezake. Adostutako orduan joan behar du herritarrak, beraz, tramitea egitera. 38.029 hitzordu erreserbatu ziren hasierako bederatzi hilabete horietan. Horri esker, 17 minututik 4 minutu eta 30 segundora jaitsi da itxaroten emandako denbora.

Beste behin, errolda-kudeaketekin lotutako tramitea izan zen, alde handiz, eskatuena: hamar artatetik bederatzi, zehazki (53.200 pertsona, guztien % 92). Kopuru hori 2015ekoa baino txikiagoa izan zen, orduan 61.300 lagunek eskatu baitzituzten erroldako datuak, baina gora egin du, aitzitik, errolda-kudeaketen pisu erlatiboak tramite guztiak kontuan hartuta (2015ean, guztietatik % 87 izan ziren). Erregistroari lotutako tramiteak, aldiz, % 34 jaitsi ziren, deialdi masiboak kudeatzen ez direlako jada, gehien bat, aurreko ekitaldian ez bezala. Erregistratutako agiriei dagokienez, eginkizun hori betetzen duten udal-bulegoetan, guztira, 49.693 agiri sartu ziren 2016an, barne hartuta modu elektronikoan erregistratuak. Guztien % 29 (14.310) Erregistro Orokorrean tramitatu ziren, dela aurrez aurre, dela postaz edo beste bitartekoak erabilia, eta % 11 (5.277) posta elektronikoaren bidez egin ziren. Gainerakoak, % 100 osatzeraino, erregistro osagarrietan tramitatu ziren.

Artak, xehetasuna	2013	2014	2015	2016
Errolda	69.936	66.900	61.308	53.270
Erregistroa	6.827	8.832	6.412	4.218
Beste zenbait	2.200	2.500	2.000	512

010 Herritarrendako Arreta Telefonoak 620.057 kontaktu egin zituen 2016an, hots, 2015ean egindakoak baino % 13,9 gehiago. Irteera-kontaktuak, hots, Udalak berak egindakoak izan ziren igoeraren arrazoi nagusia, herritarrekin zuzenean harremanetan jartzeko asmoa baitu, posta elektroniko, txio, telefono-dei edo sms mezuen bidez.

Iruñeko Udalaren 010 Herritarrendako Arreta Telefonoak 799 aldiz jotzen du egunean.

Gehien bat informazioa eskatzen dute herritarren deiek (kasuen % 37), edo Udalarekin kudeaketaren bat egin nahi dute (% 33), edo alorren batekin harremanetan jarri (% 18), edota, ordea, abisu, kexa edo iradokizunen bat egin nahi diote Udalari (% 2).

% 23 igo zen artatutako deien kopurua, 198.535 jaso baitzituzten, zeinetatik 170.006 artatu egin baitziren (% 85,63). Deia ireaupena, batez beste, 121 segundokoa izan zen. Dei gehienek argibideren bat eskatu zuten (% 37), telefonogune-zerbitzua eskatu zuten (% 18) edo udal-

kudeaketak izan ziren (% 33). Tramiteak ere kudeatzen ditu 010 telefonoak (68.174, guztira, 2016an, hau da, 2015ean baino % 70,1 gehiago), eta bestelako kontaktuak ditu herritarrekin. Izan ere, 2016an zehar, 406.740 sms edo email bidali zituen, ikastaroetarako izen-emateekin, herritarrendako erantzunekin edo Udalak ematen dituen zerbitzuei buruzko informazioarekin.

Kanpainak ere egiten ditu 010 telefonoak, alorrek hala eskatuta, hala nola izen-emateak egiteko, jarduera espezifikoak hedatzeko, abisu masiboak bidaltzeko eta abar. Zehazki, 179 egin zituen 2016an, hau da, aurreko urtean baino % 5,9 gehiago (haiez gain, lehenagotik zetozen beste hiru kanpainarekin jarraitu zuen, Civivox sarerako, agiritegirako eta ingurumen-boluntariotzarako). Gaztediaren Etxeak (% 50,83), Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizartea Ahalduntzeko Alorrak (% 17,31) eta Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrak (% 11,17) eskatu zituzten gehienak. Udal-zerbitzu horren bidez, Udalak urte osoan zehar antolatzen dituen ikastaro eta programetarako izen-emateak ere egin daitezke. 2016an, zehazki, 37.369 izen-emate egin ziren, eta haietako % 61,18 web bidez egin ziren..

6.542 kontaktu egin ziren abisu, kexa eta iradokizunei lotuta. Tramitazio-denbora osoa (deia jaso, dagokion udal-alorrean kontsulta egin, erantzuna jaso eta herritarrari helarazi) 22,75 egun da, batez beste. 010eko langileak, halaber, denetariko informazioaz hornituriko 10.513 fitxa (udal-webgunean daude ikusgai) prestatu eta eguneratzeaz arduratu ziren. Azkenik, 3.028 txio bidali zizkieten @010_Pamplona-tik Udalak Twitter-en duen kontuari jarraitzen dioten 3.748 pertsoneri.

Udalaren webguneak (www.pamplona.es) 3,2 milioitik gora bisita jaso zituen 2016an, 8.878 egunean batez beste. Bisitaren batezbesteko iraupena 3 minutu eta 46 segundo izan zen, eta albisteen nahiz agendaren orriek eragin zuten interesik handiena, baita civivoxetan egin ohi diren ikastaro eta jardueren ere, ahaztu gabe enplegu publikoari eskainikoak, bisitariak agiri horiek jaitsi baitzituzten gehien. Bisiten datuek % 10 inguruko igoera erakusten dute, aurreko urtekoekin alderatuta. Guztira, 2016an, 9.287.854 orrialde bistaratu ziren, aurreko urtean baino 900.000 gehiago, hau da, 25.446 orrialde egun bakoitzean. Bisita bakoitzean, batez beste, ia hiru orri ikusi ziren. Bisitarik gehien irailean izan ziren, 301.807 sarrera izan baitziren udalaren webean, eta guztira 1.038.814 orri ikusi ziren.

Orri bisitatuena webaren azal-orria izan zen, 1,3 milioi bistatik gora izan baitzituen. Behin webgunean sartuta, edota kanpo-esteken bidez iritsita, Udalaren prentsa-oharrez osaturiko orriak izan ziren bisitatuena, 1.506.804 aldiz ikusi baitziren. Agendaren orrialdeak ere usu ikusi ziren: 373.427 bisita. Civivoxetako ikastaroekin zerikusia duten orriek ere eragin zuten interes handia (75.193 bisita), edota Iruñeko aparkalekuan libre dauden lekuen berri ematen duen orriak (71.264), konpainiako animaliak hartzeko orriak (39.819) eta hiriko turismo-orriek ere bai. Gehien deskargatu ziren agiriaren artean, Udalak civivoxetan egiten diren jarduera eta ikastaro

guztien berri emateko eta hedatzeko hiru hilean behin editatzen dituen foiletoak nabarmentzen dira, 81.066 deskarga egin baitziren.

Jarraian, enplegu publikorako deialdiei lotutako agiriak datoz: 54.721 deskarga, 2015ean..

Herritarrendako Arreta Zerbitzua (HAZ)	2012	2013	2014	2015	2016
Aurrez aurreko harrera – Kondestablearen Jauregia	71.930	79.960	79.300	70.647	58.000
Telefono bidezko laguntza – 010	158.655	148.586	161.486	160.971	198.535
Harrera telematikoa– www.pamplona.es	2.524.734	2.912.212	3.082.831	3.085.699	3.240.745

Protokoloa

Iruñeko Udalak Protokolo, Zeremonial, Ohore eta Sari Ohoregarriari buruzko Erregelamendua onetsi zuen martxoan egin zen osoko bilkuran. Agiriak hiriari buruzko hainbat alderdi agindu eta arautzen ditu, hala nola sinbolo eta ikurrak, udalbatza, ekitaldi ofizialak, Udalak ematen dituen ohoreak eta sari ohoregarriak, zeremoniala eta etiketa, baita dolu ofiziala eta hiletak ere. Erregelamenduaren osagarri, eranskin bat dago, ekitaldi, jantzi eta abarren historia biltzen duena, Iruñeko Udal Agiritegiaren materialekin dokumentatuta..

Erregelamenduak “Iruñeko Zapia” ohorezko saria xedatzen du, adibidez, pertsonak –fisikoak zein juridikoak– eta erakundeak saritzea xede duena, baldin eta haien eguneroko zereginetan edo jardunbide profesionalean modu aktibo eta agerikoan aritu badira Iruñearen ezaugarriak – haren historia eta kultura– zabaltzen eta finkatzen, edo gailendu badira aparteko ekarpen bat egin dutelako arteen edo zientzien esparruan”. Estreinako “Iruñeko Zapia” Batasunaren Pribilegioaren egunean eman zen, irailean, La Mañueta txurro-dendako jabe Paulina Fernández Martínezi, hain zuzen. Hiriko pertsona erreferente den honi omenaldia egin zaio, beraz, bai bere ondare gastronomiko eta kulturalagatik, bai “betiko familia saltokia” sustatu eta babesteko adoreagatik.

Udalak honako ekitaldi instituzionaletan parte hartu zuen 2016an:

Bost Zaurien elizkizuna, Ostegun Santuan; Bezperak, San Fermin prozesioa eta Zortziurrena, sanferminetan; Batasunaren Pribilegioa, irailean; eta San Saturnino, azaroan. Sanferminak dira hiriaren une gogoangarrienetako bat, eta, iaz, Iruñean erroldatutako pertsonen aukeratu ahal izaten zuten, estreinako aldiz, nork jaurtiko zuen festen hasiera iragartzen duen txupinazoa. Azkenik, Jesús Ilundáin ‘El Tuli’-k piztu zuen metxa, bozkatu zuten 9.830 pertsonen botoen % 40,3 jasota; Los de Bronce peñako 1. zenbakidun bazkidea eta San Fermin Gortearen kidea da gizona, eta entzierroa hasi aurretik kantatu ohi den abestiaren sortzaileetako bat.

2016an, 223 ezkontza zibil egin ziren Iruñeko Ziuadalan; haietako 13 elebiz egin ziren, eta 6, sexu berekoen artean. Ezkontza zibilak ostiraletan egiten dira, 18:30etik 20:00etara, eta larunbatetan, 12:00etatik 13:30era, baina, maiatzetik urrira arte, arratsaldeetan ere egiten dira, 18:30etik 20:00etara. 2013tik aurrera, abuztuan ere egiten dira ezkontzak. Data erreserbatzeko, Udaleko Elkarketa Zibilen Bulegora joan daiteke.

Urtean zehar, Udalak 124 talderen bisita jaso zuen; gehienbat, ikastetxeak izan ziren. Beraz, 3.200 bat lagunek bisitatu zituzten udaletxeko aretoak, herritarrei doan ematen zaien zerbitzu horren bidez. Asebetetze-maila neurtzeko inkestak egin ziren, estreinako aldiz, bisitaren edukiei, erreserbari eta jasotako tratuari buruz galdetuta, eta batezbesteko nota 4,85 izan zen (5 zen gehieneko nota).

2016an, 14 harrera egin ziren, alkatea buru zela eta udalbatza lagun. Haietako bat, ekainean, C.A. Osasuna klubari egin zitzaion, futboleko lehen mailara igo zela ospatzeko Iruña osoarekin, bi urte eman ondoren zilarrezko mailan.

Komunikazio Zerbitzua

Iruñeko Udaleko Komunikazio Zerbitzuak 1.844 prentsa-ohar igorri zizkien, 2016an, hedabideei, hots, aurreko urtean baino % 12,7 gehiago, urte hartan 1.636 bidali baitziren. Bidalketarik gehienak maiatz, azaro eta apirilean egin ziren: 140tik gora prentsa-ohar. Kultura da prentsa-ohar gehien egiten dituen alorra, guztien heren bat baino gehiago igorri baitzuen; bigarrena Gobernu Gardeneko Alorra izan zen. 2016an, 280 deialdi baino gehiago egin zitzaizkien hedabideei, besteak beste ekitaldi, inaugurazio, erakusketa eta prentsaurrekoetarako..

Osoko bilkurak, udaletxean ematen dituzten prentsaurrekoak eta informazio-batzordeak zuzenean (eta, nahi denean, diferituan) ikusteko aukera ere ematen die Iruñeko Udalak herritarrei, betiere hedabideendako irekiak diren gaietan (agerraldiak, adierazpen-proposamenak...). 2016an, 11.475 sarrera izan ziren osoko bilkuren zuzeneko **emankizun**etara, eta 3.420 sarrera osoko bilkurak diferituan ikusteko. Prentsaurrekoei dagokienez, 2016an 9.042 sarrera izan ziren zuzenekoetara, eta 9.372, diferituko bideoetara. Batzordeei dagokienez, 12.913 sarrera izan ziren zuzenekoetara, eta 3.145, diferituko esteketara..

	2012	2013	2014	2015	2016
Prentsa-oharrak	1.614	1.606	1.582	1.636	1.844

Prentsaurrekoak	222	218	215	187	281
-----------------	-----	-----	-----	-----	-----

Sanferminek erreferente mediatiko eta informatibo bat izaten jarraitzen dute. Mundu osoko 115 komunikabidetako 400 profesional grafiko eta kazetari baino gehiago etorri ziren Iruñera, festetako entzierroen berri ematera. Freelance argazkilariek, estatuko zein nazioarteko agentziek, hainbat herrialdetako egunkariek, irratiek, zine- eta telebista-ekoiztetxeek eta beste zenbaitek interesa agertu zuten entzierroen inguruan. Iruñeko Udalak akreditatutako profesionalak 15 herrialdetatik etorri ziren: Estatu Batuak, Argentina, Txina, Erresuma Batua, Eslovenia, Frantzia, Turkia, Txekiar Errepublika, Filipinak, Italia, Alemania, Suedia, Holanda, Kolonia eta Espainia.

Halakoak uztailaren 6an hasi ziren festen berri ematen, Txupinazoarekin batera, eskualde-, estatu- zein nazioarte-mailan. Goiz hartarako, 179 pertsona akreditatu zituen Iruñeko Udalak, udaletxetik bertatik eta Seminario etxetik sanferminen hasieraren berri eman zezaten. Profesional horiek 45 komunikabiderentzat lan egiten zuten. Gaixoa ni-rako, berriz, 38 komunikabidetako 105 pertsonak jaso zituzten akreditazioak. Akreditazio horiek uztailaren hasieratik hasi ziren banatzen Baluartean kokatua egon den Nazioarteko Prentsa Bulegoan. Bulego hori Iruñeko Udalak, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Kazetarien Elkarteak elkarlanean abiatutako proiektua da, festetan komunikabideek erreferentziazko gune bat edukitzea helburu duena.

2016an, aspaldi bezala, Udalak "Sanferminei buruzko oinarritzko gidaliburua" egin zuen, Iruñera etorritako hedabide guztiek festen inguruko oinarritzko kontuak ezagut ditzaten. Egin behar duten lan profesionalerako ez ezik, beren hedabideen bidez festei buruz mundu zabalera hedatuko duten irudirako ere baliagarria izatea da gidaliburuaren helburua. Datuak, datak, planoak eta "une sanferminero" bakoitzaren atzean dauden istorioak jasotzen ditu. Halaber, hedabideek festen irudia helaraztean jokatzeko duten rola azpimarratzen du, eginkizun garrantzitsua betetzen dutelako eredu berriak sortzeko, irekiagoak eta toleranteagoak, pertsonetik, emakumeen irudiariekiko eta mezu berdinzaileekiko adeitsuagoak, finean. Ildo horretan, Udalak dei egiten die hedabideei sanferminak ez estereotipatzeko deskontrola ezaugarri nagusi duen jai gisa, ez eta tankera horretako irudiei neurrigabeko oihartzuna ez emateko, festen kontzeptua mugatzen baitute. Alderantziz, ikuspegia zabaltzeko dei egiten die, jaiaren alaitasuna erakutsita, hiri atsegin eta adeitsu batean, ingurune seguru eta abegikor batean..

Sanferminen inguruko txioek marka guztiak hautsi zituzten 2016an. Udalak Tweet Binder izeneko nafar tresnarekin egindako azterlanaren arabera, Twitter erabiltzaileen timeline ia guztietara heldu ziren festak. Guztira, 3.221.425.607 inpaktu sortu ziren, iazko 2.019.909.447 inpaktuen aldean. Beraz, % 60ko hazkundea izan zen sare sozial honetako jardunean.

Hazkunde hori esponentziala da, urtebete lehenago, 2014an, inpaktu-kopurua milioi erdikoa izan baitzen Twitterren.

2015ean 116.000 erabiltzailek igorritako 250.000 txioen langa gainditu zen, 310.000 txio baino gehiago erregistratu baitziren, 137.080 profiletik igorrita. Aurreko urteetan bezala, Txupinazoa eta entzierroak izan ziren sare sozial honetan jario gehien eragin zituztenak. Nabarmentzekoak dira nazioarteko komunikabide eta agentziek igorritakoak: The New York Times, Associated Press, Reuters, The Economist eta Radio Caracol, besteak beste.

Mezuen artean gailendu zen hizkuntza gaztelania izan zen, txioen % 79arekin. Txioen % 11,7 ingelesez igorri ziren, eta sanferminei buruzko elkarriketen hirugarren hizkuntza japoniera izan zen, txioen % 1,5arekin. Neurri txikiago batean, badira beste hizkuntzetan egindako txioak, hurrenkera honetan: italiera, portugesa, frantsesa, indonesiera, alemana eta norvegiera.

Egunero sanferminen inguruko txioak egon baziren ere, lehenengo hiru egunetan kontzentratu ziren mezu gehienak. Bi momentu nabarmentzen dira bereziki: Txupinazoa, 3.400 Twitter-kontu baino gehiago egon baitziren mezuak bidaltzen, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara; eta lehenengo entzierroa, uztailaren 7koa. Egun horretan, beste jario-gailur bat izan zen: 07:30etik 08:30era arte, 4.000 txio baino gehiago igorri ziren beste hainbeste kontutatik, eta horien artean, 1.502 irudi bidali ziren.

Aholkularitza Juridikoa

Iruñeko Udaleko Lege Aholkularitza Alkatetzari, Tokiko Gobernu Batzarrari eta zuzendaritza-organoei laguntza juridikoa ematen dien administrazio-organoa da. Honatx zer eginkizun dituen: Iruñeko Udalarendako eta bere erakunde autonomoendako aholkularitza juridikoa, eta haien defentsa eta ordezkaritza epaiketetan.

Hona Lege Aholkularitzaren lan nagusiak 2016an:

- Nahitaezko legezkotasun-txostenak egitea Iruñeko Udalak eta bere erakunde autonomoek esleitu zituzten kontratuei buruz; kontratuen ezaugarriak idaztea; eta idazkaritza-eginkizunekin parte hartzea kasuan kasuko kontratazio-mahaietan eta prozedura negoziatuetako negoziazio-batzordeetan.
- Iruñeko Udalaren besterentzeak, administrazio-emakidak, erabilera-lizentziak eta ondasunen errentamenduak arautu zituzten baldintza-plegu eta kontratuak prestatzea eta txosten juridikoak egitea, eta era berean, kontratazio-mahaietan idazkaritza-eginkizunekin parte hartzea.
- Diru-laguntzetarako deialdien oinarrietan parte hartzea, diru-laguntzetarako deialdien gaineko legezkotasun-txostenak prestatzea eta balorazio-batzorde batzuetan parte hartzea diru-laguntzak emateko proposamenak egiteko.

- Lankidetzeta-hitzarmenen prestaketan parte hartzea, eta Iruñeko Udalak onetsi zituen hitzarmenen gaineko legezkotasun-txostenak egitea.
- Herritarrendako lege-aholkularitzaz arduratzea emakumeendako udal-laguntza zerbitzuan.
- Herritarrendako lege-aholkularitzaz arduratzea etxebizitzako udal-laguntza zerbitzuan.
- Hirigintza-lizentzien espedienteetan txosten juridikoak egitea, hirigintza-legezkotasuna babestea eta arlo horretako zehapen-espedienteak egitea.
- Lege-aholkularitzaz arduratzea Iruñeko Udaleko hiria zaharberritzeko bulegoak kudeatu zituen zaharberritze-laguntzetarako espedienteetan.
- Herritarrei aholkularitza ematea eraikinak zaharberritzearekin lotutako alderdi juridikoen gainean, jabe-komunitateen akordioek eraikinak zaharberritzeari dagokionez izan behar duten edukiaren gainean, bai eta akordio horiek baliozkoak izateko izan behar dituzten betebeharrak juridikoen gainean ere. Bestalde, hiria zaharberritzeko bulegoan bertan egindako jabeen erkidegoen batzarretan ere parte hartzen du.
- Txosten juridikoak egitea, planeamendu- nahiz birzatatze-dokumentuak eta hirigintza-proiektuak onesteko, eta era berean, Iruñeko Udalak onetsitako hirigintza-planeamendurako eta -kudeaketarako hitzarmenetan.
- Txosten juridikoak egitea trafiko, ingurumen eta osasun arloko zehapen-espedienteetan.
- Txosten juridikoak egitea langileria arloko gaietan, eta langileak hautatzeko prozeduretan parte hartzea.
- Txosten juridikoak egitea ondare-erantzukizuneko espedienteetan eta udal-ondasunei kalteak erreklamatzeko espedienteetan.
- Ordenantzak eta erregelamenduak prestatzea, teknikariekin elkarlanean, eta haiei buruzko legezkotasun-txostenak egitea.
- Honako espedientei buruzko lege-aholkularitzaz arduratzea; erroldatzea, udal-erregistroa, ezkontza zibilak eta izatezko bikoteak.
- Udalaren alorretako idazkaritza teknikoaren eta Osoko Bilkurako idazkaritzaren ordezkapen-lana egitea haiek oportunitatean daudenean, baimen-egoeretan eta aldi baterako lan-ezintasuneko kasuetan.
- Lege-aholkularitza eta idazkaritza-eginkizunak Haur Eskolen erakunde autonomoarentzat, Gayarre Antzokia udal-fundazioan eta Emakumearen Kontseiluan.

- Laguntza ematea, idazkaritza- eta mahaikidetza-eginkizunekin, honako merkataritza-sozietate hauekiko akziodunen batzarretan eta administrazio-kontseiluetan: Pamplona Centro Histórico-Iruña Biziberritzen, S.A., ASIMEC, S.A., Comiruña, S.A. Mercairuña, S.A. eta Asociación Navarra de Informática Municipal, S.A.
- Zinegotziek, alor-zuzendaritzek, idazkaritza teknikoek eta Iruñeko Udaleko langileek hitzez egindako hainbat kontsultari erantzun zitzaizkien.
- Iruñeko Udalaren defentsa egiten du jurisdikzio-ordena guztietako epaitegi eta auzitegien.

2016an, zerbitzu juridikoak honako errekurso hauen defentsaz arduratu ziren administrazio-fasean: berraztertze 2.016 errekurso; gora jotzeko 2.027 errekurso (1.249 ezetsi egin ziren; 176, baietsi; 191, neurri batean baietsi; 72, artxibatu; 164, ukatu; 150etan uziak aitortu ziren; 114 ebatzi gabe daude; eta 23, epaitzeko igorri zain); eta gora jotzeko 5 errekurso, Osoko Bilkurari zuzenduak (ezetsi egin ziren guztiak).

Era berean, 249 auzitan aritu ziren Iruñeko Udalaren eta bere erakunde autonomoen defentsan zerbitzu juridikoak, honako jurisdikzioetan: administrazioarekiko auzietan, zibilean eta merkataritzakoan, eta zigor arlokoan. Auzi motaren arabera, 205 administrazioarekiko auziak izan ziren; 23, zibil eta merkataritzakoak; eta 21, zigor arlokoak.

Defendatutako administrazioarekiko auzietatik, 180k zenbateko zehaztugabea zuten. Gainerako 25ek, aldiz, zenbateko zehaztua zuten: 20.265.296,69 euro guztira.

2016an, 176 prozedura bukatu ziren; hau da, guztien % 70,68. Bukatutako prozeduretatik, 106 (% 60,22) udal-interes aldekoak izan ziren, eta gainerakoak, 70 (% 39,78), kontrakoak.

Zigor arloan, 45 esku-hartze izan ziren instrukzio-epaitegien; 21, falta-epaiketetan edo larritasun txikiagoko delituen epaiketetan; defentsa bat egin zen ahozko epaiketa batean; instrukzio-epaitegiaren epaien aurkako 12 apelazio-errekurso aurkaratu ziren; akusazio partikularra egin zen 4 prozesutan; defentsa egin zen aurretiazko eginbideetan; zigor arloko epaien 9 exekuziotan esku hartu zuen; eta 3 auzitan egin zituen herri-akzioa eta akusazio partikularra Udalaren izenean.

Gizarte arloan, 9 prozedura eraman zituen: 3, kontingentzia-aldaketakoak (haietako 2 baietsi ziren); 2, erretiro-eskaera, Gizarte Segurantzak eginak (haietako bat baietsi zen, eta bestea, epaiaren zain); 1, gatazka kolektibokoa, antzinatasunagatik eta subrogazioagatik (biak, epaiaren zain); eta 2, kaleratze desegokiak erreklamatzekoak (batan, Udala absolbitu zen, eta gaitzetsi egin zen, aurretiazko erreklamazioa aintzat hartu zelako).

Kostuei dagokienez, Iruñeko Udalak eta bere erakunde autonomoek 11.524,32 euro sortu zituzten (haietatik, 11.124,32 kobratu ditu) eta 15.032,36 ordaindu zituzten. Halaber, Hirigintza

Gerentziak 3.715,90 euro ordaindu zituen kostuengatik, hirigintza-exekuzioko unitateei jasanarazi beharko zaizkienak gastu gisa.

Iruñeko Udal Agiritegia

Iruñeko Udal Agiritegia Iruñeko Udalak bere eskumenen erabileran -entitate juridiko, politiko eta administratibo gisa- ekoizten eta jasotzen duen dokumentazio guztiaren antolaketaz, zainketaz eta zerbitzuaz arduratzen den zerbitzua da, eta horretan jardun du sortu zenetik gaurdaino. Agiritegiari buruzko lehen aipamen idatziak 1423koak dira, errege Karlos III.a Nobleak Iruñeko Hiriri antolaketa zehatza eman baitzion, eta denboraren joanean, eta gero eta eginkizun nahiz eskumen gehiago garatu ahala, dokumentazio-funts aparta sortu zen bolumenari begira (sei mila metro lineal baino gehiago), bai eta kalitateari begira ere..

2016an zehar, Udal Agiritegiak 1944ko sanferminen kartelaren ale litografiko bat eta Iruñeko 18 argazki zahar (plastikozko euskarridun negatiboak) erosi zituen. Partikular batek egindako dohaintza (135 paper-positibo) onartu zen. 2016an, dokumentazio-kudeaketan egindako jarduketan artean, hona hemen aipagarrienak:

- 1.025 irudi digitalen transferentzia; Alkatetzak 2015eko bigarren sei hilekoan egindako lan instituzionalari zegozkion.
- 2015eko eta 2016ko sanferminen 2 kartel jatorrizkoren transferentzia.
- XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko dokumentazioaren antolaketa, artxibo-tratamendua, behin-behineko instalazioa eta deskripzioa; identifikatu gabe dago oraindik dokumentazioa. 500 fitxaren datu-basea sortzea, ISADG arauaren arabera.
- J.J. Arazuriren argazki-bildumaren antolaketa, artxibo-tratamendua, behin-behineko instalazioa eta azaleko deskribapena. 19.961 irudiz osatua dago. (Jarraipena)
- Dokumentuak kontserbatu eta zaharberritzeari dagokionez, Libro de Inventario de los Privilegios de la Ciudad (1598) izenburukoan esku hartu zen; zehazki, garbitu, egonkortu eta euskarriak berrezarri ziren, beharrezkoa izan zenean, eta, halaber, kontserbazio-material egokietan instalatu ziren.
- Halaber, Mapak, Planoak eta Marrazkiak bildumako XVIII. mendeko 12 dokumentu-unitate zaharberritu ziren; zehazki, garbitu, egonkortu eta euskarriak berrezarri ziren, eta kontserbazio-material egokietan instalatu.
- Se interviente en 114 piezas del Legado de pablo Sarasate, afectadas por una inundación de la cámara acorazada del AMP, procediendo a su limpieza, estabilización e instalación en materiales de conservación adecuados.

- Pablo Sarasateren ondarearen 114 piezatan esku hartu zen, Udal Agiritegiko ganbera korazatuan izandako uholde batek kaltetu baitzituen; zehazki, garbitu, egonkortu eta kontserbazio-material egokietan instalatu ziren. Udalbatzako Osoko Bilkuren aktak seriearen frakzioaren digitalizazioa, 2014 (II)-koak, 1.648 orrialde tiff formatura pasatuta, formatu hori oinarri harturik pdf fitxategiak sortzeko, askotariko orrikoak, bulego ekoizleak diseinatutako egitura errespetatuta.
- 6.997 negatibo (gelatina-emulsioa, zelulosako nitrato, diazetato eta triazetatoen euskarrien gainean) garbitu eta birkokatu ziren; Zubieta eta Retegui argazkilarien fondotik datoz negatiboak, eta 1940-1983 bitarteko entzierroen (6.792 erregistro) eta karlismoari lotutako gaien erreportajeak (205 erregistro) dira. RAW euskarriara bihurtu ziren eta TIF zein JPG euskarriak sortu ziren, kontsultarako. Halaber, morfologiak, egileak, merkataritza-markak eta kapturatze-ekipoak deskribatu ziren.
- Maileguan utzitako 19 piezak (dokumentuak, liburuak eta objektuak) itzuli zitzaizkion Karlismoaren Museoari; 2015eko maiatzetik 2016ko martxora ikusgai jarritako Hiria errenditzea: Iruñeko blokeo karlista (1874ko irailetik 1875eko otsailera) erakusketarako eskatu ziren.
- Batasunaren Pribilegioaren promulgazioa ospatzeko ekitaldietan parte hartu zen, XV. mendeko jatorrizko agiria udaletxean ikusgai jarrita, eta harekin batera, aipatu agiriaren hainbat kopia, edizio eta azterlan.
- Udal Agiritegiaren parte-hartzea Dokumentu Elektronikoaren Plan Zuzentzailearen garapenean eta Dokumentu Elektronikoaren Kudeaketa Politikaren definizioan; alkatetza-dekretu bidez onetsi ziren biak, irailaren 29an, eta ahalbidetuko dute Udalak beren dokumentuak kudea ditzan estatuko eta autonomiako araudian aurreikusitako eskakizunekin bat, e-administrazioari dagokionean, dokumentuen bizitza-ziklo guztian, aldi berean haien osotasuna, egiazkotasuna eta irisgarritasuna denboran bermatuta.
- Udal Agiritegia Dokumentu Kudeaketako Batzorde Teknikoan sartzea, 2016ko irailaren 28ko alkatetza-dekretuaren bidez.

Dokumentuak erabili eta erreproduzitzeko 139 baimen-espediente tramitatu ziren 2016an, hau da, 2015ean tramitatutako 50ak baino 89 gehiago. Halaber, 5 txosten egin ziren; 2 nahitaezkoak izan ziren, partikularrek eskatuta, Iruñeko Udal Agiritegian zeuden datuen ziurtapen-espedienteetan; eta 3, kaleak izendatzeko prozeduretan.

2016an liburutegian (zeina bilduma bibliografikoak eta bilduma hemerografikoak osatzen baitute) egindako jarduketan artean, 253 monografia sartu eta katalogatu ziren; aldian behingo argitalpenen 1.269 ale sartu ziren, 34 goiburu desberdini zegozkienak; 1.114 lan bibliografikoen fitxa katalogafikoak berrikusi ziren; 20.796 orrialde eraman ziren euskarri digitalera, Nafarroako

prentsa historikoaren goiburu desberdinei zegozkienak (La Hoja del Lunes eta La Voz de Navarra); eta “Nafarroako prentsa historikoaren katalogazioa 1940ra arte” izenburuko proiektuan parte hartu zuen, erakundeotako liburutegiekin elkarlanean: Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Artxibo Nagusia eta Nafarroako Liburutegi Orokorra. Udal Agiritegiak ehun bat izenbururen ekarpena egin zuen proiektura, ez baita hark adina goiburu eta alerik duen erakunderik.

2016. urtean, 22.913 dokumentu kontsultatu ziren, aurreko urtean baino % 74 gehiago, 13.167 kontsultatu baitziren orduan; argazki-fondo eta -bildumak (9.759 argazki/6.237 argazki, 2015ean) eta Hirigintza Lizentzien espediente-seriea (5.399 espediente/ 2.088 espediente, 2015ean) izan ziren kontsultatuenak. 282 espediente laga zitzaizkien udal-bulegoei; haietako 249 itzuli ziren, eta 33 itzultzeke zeuden. Bibliografia- eta hemerografia-bildumei dagokienez, berriz, 2.546 kontsulta egin ziren (2015ean, 1.535 egin ziren). Erabiltzaileen kontsulta gehienak aurrez aurre egin ziren; dena den, era esponentzialean ugaritu ziren telefono bidezko kontsultak, eta batez ere, posta elektronikoaren bidezkoak..

BIZTANLEAK

Iruñeko biztanleak guztira:

ADINA	GIZONAK	%	EMAKUMEAK	%	GUZTIRA	%
0 – 4 urte	4.466	4,7	4.359	4,1	8.825	4,4
5 – 9 urte	4.885	5,1	4.576	4,3	9.461	4,7
10 – 14 urte	4.929	5,2	4.591	4,4	9.520	4,7
15 – 19 urte	4.895	5,1	4.908	4,7	9.803	4,9
20 – 24 urte	5.150	5,4	5.185	4,9	10.335	5,2
25 – 29 urte	5.399	5,7	5.603	5,3	11.002	5,5
30 – 34 urte	6.210	6,5	6.359	6,0	12.569	6,3
35 – 39 urte	7.242	7,6	7.372	7,0	14.614	7,3
40 – 44 urte	7.810	8,2	7.785	7,4	15.595	7,8
45 – 49 urte	7.609	8,0	7.864	7,5	15.473	7,7
50 – 54 urte	7.146	7,5	7.668	7,3	14.814	7,4
55 – 59 urte	6.317	6,6	6.963	6,6	13.280	6,6
60 – 64 urte	5.265	5,5	6.375	6,1	11.640	5,8
65 – 69 urte	5.196	5,5	6.294	6,0	11.490	5,7
70 – 74 urte	4.561	4,8	5.712	5,4	10.273	5,1
75 – 79 urte	3.105	3,3	4.254	4,0	7.359	3,7
80 – 84 urte	2.782	2,9	4.270	4,1	7.052	3,5
85 – 89 urte	1.554	1,6	3.096	2,9	4.650	2,3
90 – 94	568	0,6	1.597	1,5	2.165	1,1
95 – 99 urte	130	0,1	430	0,4	560	0,3
99 urtetik gora	17	0,0	84	0,1	101	0,1
GUZTIRA	95.236	100	105.345	100	200.581	100

ADIERAZLEAK	2016	%
Gizonak	95.236	47,5
Emakumeak	105.345	52,5
0-14 urteko biztanleak	27.806	13,9
15-64 urteko biztanleak	129.125	64,4
65 urtetik gorako biztanleak	43.650	21,8
Gazteria-tasa*	31.140	15,5
Mendekotasun-tasa**	0,6	
Zahartze-indizea***	1,6	
Atzeritarrak	21.414	10,7
BIZTANLEAK GUZTIRA	200.581	100

*15 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, biztanleria osoan

** 65 urtekoak edo hortik gorakoak + 14 urtetik beherakoak, 15 eta 64 urte bitartekoen aldean

*** 65 urtekoka edo hortik gorakoak, 14 urtetik beherakoen aldean

Biztanleak auzoka

AUZOA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Azpilagaña	3.604	3.952	7.556
Buztintxuri	4.173	4.436	8.609
Alde Zaharra	5.239	5.514	10.753
Txantrea	9.559	10.167	19.726
Zabalgunea	10.858	13.052	23.910
Ermitagaña	7.996	9.165	17.161
Etxabakoitz	2.541	2.672	5.213
Iturrama	10.609	12.408	23.017
Mendillorri	5.417	5.681	11.098
Milagrosa	7.605	8.401	16.006
Arrotxapea	12.498	12.982	25.480
Sanduzelai	5.908	5.846	11.754
Donibane	9.226	11.065	20.291

Etorkinak

ADINA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
0 – 4 urte	548	575	1.123
5 – 9 urte	451	440	891
10 – 14 urte	359	362	721
15 – 19 urte	491	543	1.034
20 – 24 urte	876	979	1.855
25 – 29 urte	1.102	1.309	2.411
30 – 34 urte	1.490	1.588	3.078
35 – 39 urte	1.520	1.291	2.811
40 – 44 urte	1.309	987	2.296
45 – 49 urte	959	779	1.738
50 – 54 urte	627	590	1.217
55 – 59 urte	463	473	936
60 – 64 urte	261	325	586
65 – 69 urte	142	180	322

70 – 74 urte	75	99	174
75 – 79 urte	40	73	113
80 – 84 urte	20	40	60
85 – 89 urte	11	20	31
90 – 94	5	5	10
95 – 99 urte	3	2	5
99 urtetik gora	2	0	2
GUZTIRA	10.754	10.660	21.414